

<b>MARRAZKETA TEKNIKO II</b>					
<b>PROGRAMAZIO LABURRA</b>					
Irakaslea	BELEN FLAMARIKE	Maila	2 BATXILERGOA	Ikasturtea	2021/22
<b>IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN</b>					
<p>Marrazketa Teknikoaren helburuetako bat ikasleari grafikoki objektibotasunez komunikatu ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak ematea da, mundu gero eta konplexuago honetan, egungo eta etorkizuneko beharrak konponduko dituzten produktuak diseinatu eta fabrikatu behar baitira. Funtzio komunikatibo horri esker, nazio-mailako, erkidego-mailako eta nazioarteko zenbait konbentzio adostu dira, eta horri esker, ideiak edo proiektuak modu fidagarrian, objektiboan eta zalantzarik gabe transmititu, interpretatu eta uler ditzakegu.</p>					
<b>OINARRIZKO GAITASUNAK</b>			<b>UNITATEAK</b>		
1) Hizkuntza komunikazioa.		1	2	3	
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.		1			
3) Gaitasun digitala.		1	2	3	
4) Ikasten ikastea					
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.		1	2	3	
6) Ekimena eta ekintzailtza.					
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.		1	2	3	
<b>ETAPAKO HELBURU OROKORRAK</b>					
Batxilergoa: <a href="https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1">https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1</a>					
<b>EDUKIAK</b>					
<b>1. MULTZOA.–GEOMETRIA METRIKOA</b> <b>2. MULTZOA.–GEOMETRIA DESKRIBATZAILEA</b> <b>3. MULTZOA.–ERREPRESENTAZIO SISTEMAK</b>					
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK</b>					
<a href="#">2 Batxilergoko curriculuma</a>					
<b>UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA</b>					
1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
2	<b>1.GEOMETRIA LAUA</b> Oinarrizko eraikuntzak: paraleloak, elkartzutak, angeluak, leku geometrikoak	1	<b>2. GEOMETRIA DESKRIBATZAILEA</b>  Geometria Deskribatzailearen oinarriak:  proiekzio motak, errepresentazio	17	<b>Sistema Diedrikoa:</b>  <b>Poliedro erregularren errepresentazioa.</b>  <b>Prisma, zilindroa, piramidea eta konoaren errepresentazioa.</b>

			sistemak.		Sekzioak eta Garapenak
6	<b>Forma poligonalak:</b> triangeluak, laukiak eta poligono erregularrak	14	<b>Sistema Diedrikoa:</b> <b>Puntua , Zuzena eta Planoaren Errepresentazioa. Elkarguneak.</b>	3	Bista diedrikoak
6	<b>Erlazio Geometrikoak:</b> Proporzionaltasuna, berdintasuna, antzekotasuna, baliokidetasuna. Simetria.Eskalak	10	<b>Sistema Diedrikoa:</b> <b>Paralelotasuna, Elkartzutasuna eta Distantziak</b>	4	<b>Sistema Axonometriko ortogonal.</b>
1	Planoko mugimenduak	5	<b>Sistema Diedrikoa:</b> <b>Eraispenak.</b> Plano baten eraispena, eraispen zuzena. Plano mota guztien eraispenak. Ariketak	8	<b>3. ARAUKETA:</b> Ebakidurak eta Akotazioa
8	<b>Ukitzeen azterketa sistematikoa</b>	3	<b>Sistema Diedrikoa:</b> <b>Biraketak.</b> Puntua, Zuzena eta Planoa		
7	<b>Kurbak:</b> Teknikoak, konikoak eta ziklikoak	3	<b>Sistema Diedrikoa:</b> <b>Plano Aldaketak:</b> puntua zuzena eta plano		
32		36		38	

### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Unitate didaktikoaren edukien arabera, ahozko azalpenak, proiektzioak, marrazkien bidezko azalpenak arbelan, ariketa praktikoak, azterketak...eginen dira.

Ikasleek ikasgaia ongi jarraitu, menperatu eta ikasteko gelan apunteak hartu eta etxean **ariketa praktiko osagarriak egin beharko dituzte.**

**Apunte guztiak classroom-en egonen dira, formatu inprimagarrian, esanguratsuenak edota gai berriei dagozkienak fotokopiatuko dira eta besteak ez.**

#### **BALIABIDEAK:**

Proiektorea, ukipen-pantalla, arbela, ikasgela digitala (Classroom) eta Cromebookak

Honetaz gain, gai batzuen teoria eta ariketak batez ere fotokopien bidez landuko dira.

Bai gelan, bai etxean, honako material hau ere eduki beharko dute ikasleek: eskuaira eta kartaboia, konpasa, zorrozgailua, borragoma, bi arkatx (HB eta 3H), eta erregela zenbakiduna.

### EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

#### **KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK**

#### **ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK**

Ikasleek ikasgaia ongi jarraitu, menperatu eta ikasteko gelan apunteak hartu behar izanen ditu eta etxean **ariketa praktikoak egin beharko dituzte.** Hauetan garbitasuna, zehaztasuna, arrazonamendu logikoa eta problemak garatzeko duten trebezia frogatu beharko dute.. Ariketak entregatzea ez da derrigorrezkoa, baina bai oso gomendagarria eta ariketa guztiak egin izanak azterketako notari puntu bat gehitu diezaioke, ariketak ongi badaude eta garaiz ematen badira.

Kurtsoa hiru atal nagusitan banatzen da; 1) Geometria Metrikoa, 2) Geometria Deskribatzailea

eta 3) Bistak, Arauketa eta Perspektiba. Atal bakoitzaren amaieran azterketa bat eginen da gutxienez, adibidez 2. ebaluazioaren erdialdean Sistema Diedrikoaren oinarri buruzko azterketa bai eginen dela kontzeptuak ongi barneratzen direla ziurtatzearen. Nota globalean atal bakoitzak izanen duen balioa ondokoa izanen da:

- **Geometria Metrikoa: %30**
- **Geometria Deskribatzailea: %40**
- **Errepresentazio sistemak, Arauketa eta Bistak: %30**

Lanen atalarekin batezbestekoa egiteko, **azterketan gutxienez 4-ko nota atera behar da.**

**%20 eskola saioetara ez etortzeak ebaluazio jarraiaren eskubidea galtzea ekarriko du.**

Kopurua bai hutsegite justifikatuen (justifikazio ofizialak izan ezik), bai justifikatu gabeen batuketa eginez aterako da.

Ebaluatzeko kontuan hartuko diren elementuak honakoak dira:

- **Gelan eta etxean egin beharreko ariketak: %10**
- **Azterketak: %90**

#### **.Borobiltzea:**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

**Ebaluaketen berreskurapenak:** Ebaluaketa bakoitzaren ostean berreskurapen azterketa eginen da, eskola orduetan, horretarako ezarritako egutegian.

Berreskuratutako hiruhilean nota berreskurapen azterketatik aterako da zuzenean, hiruhilean zehar egindako ariketak aintzat hartu gabe.

#### **Ikasturteko berreskurapena (Ohiko deialdia):**

Hiru hileen batezbestekoa egingo da, hiruhileetako bakoitzean gutxieneko 4ko emaitza lortu izan bada. ikasturtea gaindituta egonen da hiruhileen batez bestekoak 5eko edo gehiagoko emaitza ematen baldin badu.

Hiruhileetako batean ez bada (ez hiruhilean, ez bere berreskurapenean) 4ko emaitza lortu, ikasturteko berreskurapena egin beharko da (globala).

Hiru hiruhileen batezbestekoak ez badu 5eko edo gehiagoko emaitza ematen, ikasturteko berreskurapena egin beharko da (globala).

**Berreskuratu beharreko ikasturtearen (azterketa globalaren) nota azterketatik aterako da zuzenean, hiruhileetan zehar egindako ariketak aintzat hartu gabe. Azterketa honetara guztiok izanen dute aurkezteko aukera ikasturteko nota igotzeko.**

Selektibitateko egitura izanen du azterketak.

#### **Ikasturteko berreskurapena (Ez-ohiko deialdia):**

Ohiko deialdian ez bada ikasturtea gainditzea lortzen, ez-ohiko deialdian ikasturteko berreskurapena (globala) egin beharko da.

**Berreskurapen guztietan, bai ebaluaketakoak baita ohiko zein ez ohiko deialdietan azterketako nota hurrengo taularen arabera izanen da:**

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
8.5 - 10	7
7 - 8.4	6
5 - 6.9	5
0 - 4.9	Berreskurapenaren emaitza borobildua (4 eta 5

	artean, 4)
Berreskuratutako ikasturtearen (azterketa globalaren) nota azterketatik aterako da zuzenean. Selektibitateko egitura izanen du azterketak.	
<b>KANPOKO EBALUAZIOA</b>	

**OHARRA:** Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar egoeraren arabera ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.